



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

70. INFORMAZIO BULETINA

> 2012ko Iraila



GIPUZKOA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2012ko Iraila

NABARMENDU BEHARREKOA

> Banku-batasunerako ibilbide-orria

Finantza-zerbitzuen merkatu bakarra arau komunetan oinarrituta dago eta horiei esker, itunari jarraiki libreki finkatzeko eta zerbitzuak libreki eskaintzeko eskubideaz gozaten duten bankuak eta beste finantza-erakunde batzuk arau baliokideei eta EB guztian gainbegiraketa egokiari lotuta daude.

Ildo horretatik, Europako Batzordeak Europako Kontseiluari eta Parlamentuari proposatu die bankuetarako gainbegiraketa Mekanismo Bakar berrian Europako Banku Zentralak euroguneko banku guztien finantza-egonkortasunarekin lotutako gainbegiraketako eginkizun espezifikoak jasotzea. Hala eta guztiz ere, gainbegiraketa nazionalek eginkizun handia izango dute eguneroko gainbegiraketan, baita Europako Banku Zentralaren erabakien prestaketan eta aplikazioan ere.

Proposamen berriaren arabera, Europako Banku Zentrala honako eginkizun hauen arduraduna izango da: kreditu-erakundeei baimena ematea; kapital, palankaz jasotze eta likidezia baldintzak betetzen direla zaintzea eta konglomeratu finantzarioen gainbegiraketa garatzea. Era berean, esku-hartze goiztiarreko neurriak hartu ahal izango ditu, banku batek kapitaleko arau-baldintzak urratzen ez dituenean edo ez betetzeko arriskua dagoenean, bankuei neurri zuzentzaileak hartzeko eskatuta.

Europako Banku Agintaritzak merkatu bakarraren osotasuna gordetzeko eta Europar Batasuneko hogeita zazpi herrialdeetan banku-gainbegiraketaren koherentzia bermatzeko Gainbegiraketa Eskuliburu Bakarra egitea ere proposatu du Batzordeak.

Batzordearen jakinarazpenak 2013ko urtarrilaren 1a adierazten du gainbegiraketako mekanismo bakarra finkatzeko datatzat.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2012:0510:FIN:ES:PDF>



> Espainiako banku-sistemaren kapital beharra

Irailaren 28an aurkeztu zen Espainiako eta Europako agintarien artean uztailearen 20an onartutako Akordio Memorandumean aurrez ikusitakoaren arabera, sektorearen birkapitalizazio- eta berregituraketa-prozesuaren testuinguruan egindako esfortzu-probetan oinarritutako Espainiako banku-sistemaren kapital-beharraren ebaluazioa.

Proba horretan parte hartu dute Espainiako hamalau banku nagusik (egun abian dauden integrazio-prozesuak kontuan hartuta), hau da, Espainiako banku-sistemako aktiboen % 90 inguruk.

Aztertutako sektoreko kreditu-zorroaren arabera, % 62 ordezkutzen duten kontuan hartutako taldeetatik zazpi eskatutako gutxieneko kapitala gainditzen dute: Santander, BBVA, CaixaBank, Kutxabank, Banco Sabadell, Bankinter eta Unicaja-CEISS. Erakunde horiek, hortaz, ez dute kapital osagarri eskatuko, ezta oso kontrakoa den eszenatoki makroekonomikoan ere.

Informazio gehiago:

http://www.bde.es/f/webbde/SSICOM/20120928/background_ow280912.pdf

> Europako eskualde, lurralde eta hirien atlas estatistikoa

Eurostatek mapa estatistiko eta topografikoen Atlas Estatistikoa delako mapa-bisorea argitaratu du eta "oinarizko hainbat maparen" informazio geografikoa –NUTS eskualdeetako mugak edo hiriak, esaterako– mapa estatistikoetako informazioarekin konbinatzeko aukera ematen du. Atlas Estatistikoak 2012ko Eskualde mailako Urtekariko mapa guztiak biltzen ditu, gaika eta argitalpen-kapituluka ordenatuta.

Urtekaririk kide diren 27 herrialdeetako eskualdeen adierazle sorta zabala aurkezten du, 11 gaietan antolatuta: ekonomia, biztanleria, osasuna, hezkuntza, lan-merkatua, enpresen egiturazko estatistikak, turismoa, informazioaren gizartea, nekazaritza, garraioa, zientzia, teknologia eta berrikuntza. Kapitulu bakoitzak informazio estatistikoa aurkezten du mapetan, grafikoetan eta tauletan, ondorio nagusien, datu-turrien eta testuinguru politikoaren deskribapenarekin batera.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/publications/regional_yearbook



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2012ko Iraila

KOHESIO-POLITIKA

> Kontratazio publikoa eta kohesio-politika

Europako Parlamentuko Eskualde Garapeneko Batzordeak kontratazio publikoaren eta kohesio-politikaren arteko lotura aztertzen duen azterketa argitaratu du.

Kohesio-politikaren testuinguruan kontratazioa non eta nola aplikatzen den, EBko egungo egoera, kontratazioaren alorreko araudiak legedi nazionalera aldatzea eta marko juridikoaren etengabeko aldaketa aztertzen ditu.

Era berean, kontratazioko adibide eta esperientzia praktikoak aztertzen ditu eta gomendioak ematen ditu.

Informazio gehiago:

<http://www.europarl.europa.eu/committees/en/regi/studiesdownload.html?languageDocument=EN&file=75751>

> Berrikuntza bultzatzeko ekintzen ebaluazioa. Metodoen eta praktiken gida

Europako Batzordeko Eskualde Politikako Zuzendaritza Nagusiak berrikuntza bultzatzeko ebaluaziorako metodologia praktikoaren egungo egoeraren analisia egin du Technopolis Group eta Manchester Institute of Innovation Research enpresen laguntzarekin, EGEF funtsak aldi berean finantzaturako 15 programen ebaluaziotik abiatuta. Analisiaren helburua berrikuntzarako laguntzen ebaluazio metodologikorako gida egitea da.

Txostena atal nagusi hauetan egituratuta dago: zientziaren eta industriaren arteko lankidetzaren ebaluazioa, ikerketa estrategikoko eta teknologikoko neurrien ebaluazioa, enpresa berritzaileei laguntzeko zerbitzuen ebaluazioa, enpresetarako berrikuntza-funtsen ebaluazioa eta kluster-politiken ebaluazioa.

Horietako bakoitzerako honako hauek aztertuko dira: bultzaturako ekintza motak, espero diren emaitzak, ebaluazioaren kudeaketa eta metodo espezifikoak, horiei dagozkien aholku praktikoekin.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/evaluation/pdf/eval2007/innovation_activities/inno_activities_guidance_es.pdf



> Donostiako Zinemaldiaren 60. edizioan ikusgai jarritako filmetatik 15ek Europako Batzordeko MEDIA programaren laguntza jaso dute

Irailaren 21etik 29ra izandako Donostiako Zinemaldiaren 60. edizioko hainbat sailetan parte hartu duten 15 filmek Europako ikus-entzunezkoen sektoreari laguntzeko Europako MEDIA programaren laguntza jaso dute.

Sail ofiziala: [Foxfire](#) (Frantzia eta Kanada), [The hypnotist](#), (Suedia), [Die Lebenden / The dead and the living](#) (Austria, Polonia eta Alemania), [Dans la maison](#) (Frantzia)

Lehiaketatik kanpo: [Lo imposible](#) (Espainia)

Zabaltegi: [7 días en la Habana](#) (Espainia eta Frantzia)

Zabaltegi Perlak: [Amor](#) (Frantzia, Alemania eta Austria), [The angels' share](#) (Erresuma Batua, Frantzia, Belgika eta Italia), [Après mai \(something in the air\)](#) (Frantzia), [Cesare deve morire \(Caesar must die\)](#) (Italia)

Zuzendari berriak: [Chaika \(seagull\)](#) (Espainia), [Le jour des corneilles \(Day of the crows\)](#), (Frantzia eta Belgika)

Made in Spain: [30 años de oscuridad](#) (Espainia), [Elefante Blanco](#) (Espainia eta Frantzia) eta [Sueño y silencio](#), (Espainia eta Frantzia)

Jaialdian parte hartu duten 15 film horiei diru-laguntza emateaz gain, **MEDIA** programak **The Industry Club** bultzatu du, zinemaldian izandako industriako profesional, erosle eta saltzaileentzako topagunea.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/culture/media/programme/overview/news/index_en.htm#sabastian



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Produktibitatea bultzatzea "hodeiaren" potentziala aprobetxatuta

Europako Batzardeak Europako enpresen eta administrazio publikoaren produktibitatea bultzatu nahi du "hodeian" informatikaren potentzial guztia benetan aprobetxatuta.

Europako Batzardeak "Europako hodeiko konputazioaren potentziala askatzea" izeneko jakinarazpenaren bidez Europako enpresa eta administrazio publikoetako produktibitatea bultzatzeko estrategia azaldu du; eta horretarako, Europan 2,5 milioi lanpostu berri sortzea eta 2020. urterako Europar Batasuneko urteko BPGd-aren 160.000 milioi euroko igoera (% 1 ingurukoa) ekarriko duten hainbat neurri proposatzen ditu.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2012:0529:FIN:ES:PDF>

> BEZari buruzko kontsulta publikoa

Europako Batzardeak Europako herritarrei eta enpresei zabalduko Balio Erantsiaren Zergari (BEZ) buruzko kontsulta publikoaren prozesu berria argitaratu du. Kontsultaren helburua zerga horri buruzko proposamenak egin ahal izateko herritarren partaidetza edukitzea da.

Erkidegoko gobernuak joan den urtean aurkeztutako zergari buruzko estrategiarekin bat datozen hiru alorretan oinarritzen da galdeketa: tasa murriztuak, zenbait produktutan zerga kentzea eta tasaren harmonizazioa antzeko produktuetan.

Kontsulta eskuragarri egongo da Batzardearen web orrialdean 2013ko urtarrilaren 3ra arte

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/taxation_customs/common/consultations/tax/index_en.htm



> Nazioarteko lankidetzaz zientifikoa bultzatzeko estrategia berria

Europako Batzardeak ikerketaren eta berrikuntzaren alorrean nazioarteko lankidetzaz zientifikoa bultzatzeko Europako estrategia aurkeztu du, mundu mailako erronka nagusiei aurre egiteko tresna gisa.

Estrategia berri horren helburua Europar Batasuneko lehentasun estrategikoen gaineko lankidetzaz areagotzea da, Batasuneko ikerketan hirugarren herrialdeen partaidetzaz zabaltzeko tradizioari eutsita.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/research/iscp/pdf/com_2012_497_communication_from_commission_to_inst_es.pdf#view=fit&pagemode=none



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> European Competitiveness Report 2012

Europako lehiakortasunari buruzko emaitza nagusiak biltzen dituen urteko argitalpena. Horren xedea Europako industriaren lehiakortasuna handiagoa izateko alderdi nagusiak ulertzen laguntzea eta Europako enpresek gainditu beharreko aukerak eta mugak hobeto ezagutzea da.

Argitalpen horretako emaitzen arabera, Europako lehiakortasuna honako hauetan oinarritzen da nagusiki: nazioarteko merkataritzan duen garrantzia, atzerriko zuzeneko inbertsioaren erakarpen-indarra, eraginkortasun energetikoa eta ondoko herrialdeekin taldeetan eta sareetan parte hartzea.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/enterprise/policies/industrial-competitiveness/competitiveness-analysis/european-competitiveness-report/index_en.htm

> Lan-merkatua Europan 2012

Europako Batzordearen txostenak lan-merkatuko aldagaien azken bilakaera aztertzeaz gain, bi ikuspegi jasotzen ditu; bata, EBko lan-merkatuaren hamarkada bateko erreformen analisisian oinarritutakoa eta, bestea, enpleguaren babeserako legediaren ondorio makroekonomikoetan oinarritutakoa.

Erreformari begira emandako bultzada langabezia gehien duten herrialdeetan mantendu behar dela adierazten du, erronka esanguratsuei aurre egiten laguntzeko, esaterako: langabezia errotzea prebenitzea eta saihestea, jarduera-tasak mantentzea, laneko ezegonkortasunaren eta segurtasun faltaren kontra borrokatzea, gazteei eskolatik lanerako aldaketa erraztea eta segurtasun sozialeko sareen eraginkortasuna hobetzea.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/economy_finance/publications/european_economy/2012/pdf/ee-2012-5_en.pdf